

AZKOITIA / Civitas Nova Foroak liburutegia handitzeko proiektua saritu du

Estatu osoko 60 eraikinen proiektuetatik 16 saritu dituzte hirigintza iraunkorra sustatzeagatik; tartean Azkoitikoa

Nerea Aranguren

Azkoitiko liburutegia zabaltzeko proiektuari Foro Civitas Nova 2007 Saria eman diote. Estatu osoko 60 hautagaietatik 16 arkitektura proiektu saritu ditu Foro Civitas Nova-k, tartean Azkoitiko liburutegikoa.

Civitas Nova foroak arkitektura eta hirigintza iraunkorrarekin lotutako proiektuen diseinua eta errealizazioa sustatzea du helburu. Lau modalitatetako lau proiektu saritzen dituzte urtero, guztiak kultura arkitektonikoarekin eta hirigintza iraunkorrarekin lotuak.

Liburutegiko proiektuarekin batera, Almeriako (Espainia) etxebizitza batzuk, Valentziako (Herrialde Katalanak) Sociopolis eraikinaren hiritartzea eta Gamarrako (Gasteiz) igerilekuetako eraikin bioklimatikoaren proiektuak saritu ditu epaimahaiak. Lau proiektu hauek parekatuta geratu dira; hau da, lauretako inork ez ud lortu lehenengo saria, epaimahaiari laurek sinplifikazio edo kontraesanen bat dutela iruditzen baitzaio.

Aranbarri: «Ikaragarria da Azkoitiarentzat»

Asier Aranbarri Azkoitiko alkateak atzo adierazi zuenez, «sari hau jasotzea ikaragarria da Azkoitiarentzat».

Une honetan, Azkoitia, Arte eta Kulturaren txokoa, edo unibertsoa marka lantzen ari direla ere adierazi zuen Aranbarrik. Eta, beraz, marka honetan lanean jarraitzen ari diren bitartean, «Azkoitian dagoen ekipamentu publiko bati Estatu mailako saria emateak, bere garaian erronka gogorra izan bazen ere, bide honetik goazela esan nahi du; oso albiste ona da», ondorioztatu zuen.

Aizkibel liburutegia aurtengo martxoaren 24an inauguratu zuten, Juan Beldarrainen proiektuan oinarrituta. Handitze-lanen helburu nagusia espazioa eta zerbitzuak handitzea eta sartzeko baldintzak hobetzea izan zen.